

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA

5440

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 11koa, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturako zuzendariarena, «Nerbioi ibaiaren goiko arroa saneatzeko kolektoreen proiektua. 1. aldaketa. Basaurbe tartea. 8. eta 9. tarteak» izeneko proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen desjabetze-espeditentari hasiera ematea eta zerrenda jendaurrean jartzea erabakitzen duena.

«Nerbioi ibaiaren goiko arroa saneatzeko kolektoreen proiektua. 1. aldaketa. Basaurbe tartea. 8. eta 9. tarteak» proiektuari dagokion espeditentea aztertu da.

AURREKARIAK

1.– Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Uraren zuzendari nagusiak, 2018ko maiatzaren 11n, teknikoki onartu zuen proiektu hau: «Nerbioi ibaiaren goi-arroaren saneamendurako kolektoreen proiektua, Laudio, Orozko, Aiara eta Amurrioko udalerrietan (Araba eta Bizkaia)».

Proiektu primitiboak, besteak beste, Basaurben egingo den HUaren mendeko azpiegiturak biltzen zituen. Proiektu horrek AP-68 autobidearen azpiko bidegurutzeta barne hartzen zuen, bai eta bi zati egitea ere, hormigoi armatuzko hodian bidez, BI-2522 errepidearen eta Altube ibaiaren azpitik gurutzatzen zirenak.

2.– Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailak txosten bat egin zuen 2021eko uztailaren 13an, eta, horren bidez, arestian aipatutako errepideen azpitik gurutzatzeko proiektatutako irtenbideari buruzko informazio negatiboa eman zuen. Alegatu zuenez, inken eraso- eta irteera-putzuak jabari publikoko eremuan zeuden, bi errepideetako plataformetatik oso gertu, eta plataformen egonkortasunari, elementu funtzionaleri eta AP-68 errepidea zeharkatzen duen aireko linea duen dorre bati eragin ziezaieketen.

Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailak erabaki zuen errepide horiek gurutzatzeko proposamenak ez zirela bideragarriak, eta errepideei buruzko indarreko araudira egokitzen ziren beste aukera batzuk aztertzeke eskatu zuen.

3.– Txosten horren ondorioz, 2021eko azaroaren 29an, Uraren Zuzendaritza Nagusiak ebatzi zuen honen idazketa baimentzea: Nerbioi ibaiaren goi-arroaren saneamendurako kolektoreen proiektuaren 1. aldaketa, Laudio, Orozko, Aiara eta Amurrioko udalerrietan (Araba eta Bizkaia). 2. lotea.

4.– 2024ko martxoaren 15ean, Uraren Zuzendaritza Nagusiak, Ingurumeneko Estatu Idazkaritzaren eskumenen eskuordetzaz, TED/533/2021 Agindua (2021eko maiatzaren 31ko BOE) eta ondorengo aldaketak, ebazpena eman du teknikoki onartzeko Nerbioi ibaiaren goi-arroaren saneamendurako kolektoreen proiektua, Laudio, Orozko, Aiara eta Amurrioko udal-mugarteetan (Araba eta Bizkaia). 2. lotea. 1. aldaketa.

5.– Aipatutako espeditentak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda jasotzen du, banakatuta eta zehaztuta, identifikatzeko beharrezkoak diren datuekin, eta jendaurreko informazioaren izapidea egin da.

6.– Proiektuan aurreikusitako azpiegiturak eraikitzeko, beharrezkoa eta premiazkoa da proiektuak eragindako lurra okupatzea, eta, horrela, hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzko 91/271/EEE Zuzentarauan ezarritako epeak betetzea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Uztailaren 5eko 10/2001 Legeak, Plan Hidrologiko Nazionalari buruzkoak, Nerbioi Garaiko saneamendua eta arazketa barne hartzen ditu II. eranskinean (Inbertsioen zerrenda).

Bigarrena.– Lege beraren 36.5 artikulua interes orokorrekotzat jotzen ditu II. eranskinean jasotako obra guztiak, Uren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 44.2 eta 119. artikuluetan eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko 10. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

Hirugarrena.– Uraren Legeak 130. artikuluan xedatzen duenez, interes orokorreko obra hidraulikoen proiektuak onartzeak berekin dakar onura publikoaren deklarazioa eta ondasunak okupatu eta eskubideak eskuratu beharra, nahitaezko desjabetzeari eta aldi baterako okupazioari begira, dagokion legerian xedatutakoaren arabera.

Laugarrena.– Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 17. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, nahitaezkoa da desjabetze-prozeduraren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea.

Bosgarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f artikuluan eta indarrean dagoen Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan arabera, salbuespen gisa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez, obra edo helburu jakin bat egiteak eragiten duen desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen okupazioa presazkotzat jo ahal izango da.

Aipatutako lege-aginduak, horiekin bat datozenak eta aplikatzekoak diren gainerakoak ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

1.– «Nerbioi ibaiaren goiko arroa saneatzeko kolektoreen proiektua. 1. aldaketa. Basaurbe tartea. 8. eta 9. tarteak» izeneko proiektuak barne hartutako eraginpeko ondasun eta eskubideak okupatzeko nahitaezko desjabetzearen espedientea hastea, obrak onura publikokoak direla aitortzea eta desjabetzeko edo zortasunak ezartzeko dagozkion lursail eta eraikinak okupatu beharra inplizituki ulertuta, Plan Hidrologiko Nazionalari buruzko uztailaren 5eko 10/2001 Legean eta Uren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2.– Aipatutako espedientearen eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea, hamabost egun baliouduneko epean, legean adierazitako azken argitalpenetik zenbatzen hasita, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Saileko Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) ager daitezen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz, eta egokituz jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten, zerrenda horretako akatsak zuzendu ahal izateko, hori guztia Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 17. artikuluan eta hurrengoetan eta haren Erregelamenduekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera eta Eusko Legebiltzarren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 178. artikuluan ezarritakoa betez.

2024ko azaroaren 27a, asteazkena

Aipatu epean zehar, honekin batera doan ondasun eta eskubideen zerrenda Laudioko eta Orozkoko udaletxeetako iragarki-oholetan egongo da, aipatu diren ondorioetarako.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluari eskatzea Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak lehenbailehen okupatu behar dituela «Nerbioi ibaiaren goiko artoa saneatzeko kolektoreen proiektua. 1. aldaketa. Basaurbe tartea. 8. eta 9. tarreak» proiektuak ukitzen dituen ondasun eta eskubideak, nahitaezko desjabetzea egiteko.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 11.

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitekturaren zuzendaria,
PABLO GARCIA ASTRAIN.

2024ko azaroaren 27a, asteazkena

ERANSKINA

Nerbioi ibaiaren goiko saneatzeko kolektoreen proiektua. 1. aldaketa. Basaurbe tartea. 8. eta 9. tartea										
Finkaren zb.	Udalerrria	Jabea	Behin betiko desjabetzea	Akueduktu-zortasuna	Aldi baterako okupazioa	Lur-eremua	Lurzatia	Azpi-lurzatia	Ukitutako ondasunaren aprobetxamendua eta katastroko izaera	
M.OR-34	Orozko	Urija Echevarria, José María		51,4600	61,8600	2	34	1, 3	Fruta-arbolak	
M.OR-172	Orozko	Orozko Udala		258,1500	13,7600	2	172		Katastratu gabea	
M.OR-35	Orozko	Urija Echevarria, José María			158,5900	2	35		Labore-lurra	
M.OR-33	Orozko	Echevarria Zalbide, Ignacio. Pagazaurtundua Larrabide, Andresa Avelina		170,0600	283,1600	2	33	1, 2, 3	Fruta-arbolak	
M.OR-32	Orozko	Echevarria Zalbide, Ignacio		100,2800	282,1200	2	32		Fruta-arbolak	
M.OR-168	Orozko	Bizkaiko Foru Aldundia		166,1200	288,8780	2	168		Errepidea	
M.OR-12001	Orozko	Orozko Udala		686,8560	1.064,8800	1010	12001	1	Katastratu gabea	
M.OR-5004	Orozko	Orozko Udala			23,2600	1010	5004	1	Orubea, lurzorua	
M.OR-5005	Orozko	Echevarria Zalbide, Ignacio Eta Beste Batzuk		199,4200	53,9300	1010	5005	1	Industria biltegia	
M.OR-5009	Orozko	Utilajes Legu S.L.		200,1790	370,6700	1010	5009	1	Industria-lurzorua	
M.OR-4003	Orozko	Orozko Udala		340,4300	427,4400	1010	4003	1	Orubea, lurzorua	
M.OR-4005	Orozko	Orozko Udala		287,3000	254,3400	1010	4005	1	Orubea, lurzorua	
M.OR-140	Orozko	Autopista Vasco Aragonesa Concesionaria		25,9000	33,3400	50	140		Bidea	
M.OR-107	Orozko	Frigoríficos de Basauri S.L			45,8800	50	107		Larrea	
M.OR-59	Orozko	Basterra Echevarria, Mª Pilar		627,8800	1.673,2300	50	59	1, 3, 4, 5	Labore-lurra	
M.OR-58	Orozko	Basterra Añibarro, José, Olaola Eguia, María De Las Mercedes			69,0600	50	58		Belardia	
M.OR-110	Orozko	Ugarte Larrazabal, María Natividad			203,4200	50	110		Belardia	
M.OR-162	Orozko	Confederación Hidrográfica del Norte		435,4000	1.165,7200	2	162		Katastratu gabea Ibaia	
M.OR-125	Orozko	Uriondo Hierro, Mª Concepción		759,9900	2.955,2200	2	125	3	Belardia	
M.OR-152	Orozko	Hormigones y Minas S.A.	2.050,8180	105,1100	448,8000	2	152	3	Harrobia	
M.OR-152 ARR	Orozko	Arcanorsa	2.050,8180	105,1100	448,8000	2	152	3	Harrobia	
M.OR-142	Orozko	Basterra Larizgoitia, Arrate. Basterra Larizgoitia, Fco. Javier. Basterra Larizgoitia, Pedro Mª	677,2138	500,8000	1.099,8400	2	142		Belardia	
M.OR-142 ARR	Orozko	Garnica Plywood Llodio				2	142		Belardia	
M.OR-154	Orozko	Hormigones y Minas Sa		1.247,9400	2.705,8100	2	154		Harrobia	

2024ko azaroaren 27a, asteazkena

Nerbioi ibaiaren goiko arroa saneatzeko kolektoreen proiektua. 1. aldaketa. Basaurbe tartea. 8. eta 9. tartea										
Finkaren zb.	Udalerrria	Jabea	Behin betiko desjabetzea	Akueduktu-zortasuna	Aldi baterako okupazioa	Lur-eremua	Lurzatia	Azpi-lurzatia	Ukitutako ondasunaren aprobetxamendua eta katastroko izaera	
M.OR-154 ARR	Orozko	Arcanorsa		1.247,9400	2.705,8100	2	154		Harrobia	
M.OR-72	Orozko	Basterra Añibarro, Jose. Otaola Eguia, Maria de las Mercedes		219,5500	1.093,8800	2	72	4, 5	Labore-lurra Baso hostotsua Belardia	
M.OR-161	Orozko	Diputación Foral de Bizkaia. Dpto. Obras Públicas		6.499,1300	11.690,8900	2	161	1, 21, 22	Katastratu gabea	
M.OR-73	Orozko	Ministerio de Fomento.Dir Gral Carretera			180,6200	2	73		Baso hostotsua	
M.OR-74	Orozko	Ministerio de Fomento.Dir Gral Carretera			133,5500	2	74		Ibaierzeko basoak	
M.OR-75	Orozko	Ugalde Sautua, Maria Amparo			23,6300	2	75		Lantzeko baratzea	
M.OR-129	Orozko	Pagazaurtundua Larrabide, Andresa Avelina			519,0900	2	129	2	ekoizteko ez dena Belardia	
M.OR-126	Orozko	Cremades Gonzalez, Juan Miguel		187,9400	177,7700	2	126	1	Hazkunde geld. Hostozabalak	
M.OR-127	Orozko	Cremades Gonzalez, Juan Miguel		191,7000	1.157,9900	2	127	1, 2, 3	Zortasun bidea Belardia Sastrakadia	
M.OR-82	Orozko	Ana Mª Gastaka Gorostiola		17,0600	234,7400	2	82	1, 2, 4	Lantzeko baratzea	
M.OR-164	Orozko	Ayuntamiento De Orozko-			22,5960	2	164		Katastratu gabea	
M.OR-80	Orozko	Cremades Gonzalez, Juan Miguel		249,7700	509,9700	2	80	3	Belardia	
M.OR-166	Orozko	Orozko Udala		241,8640	78,4800	2	166		Katastratu gabea	
M.OR-88	Orozko	Nubiola Vilumara, Ricardo		4,7400	131,5000	2	88	1, 2, 3	Lorategia	
M.OR-138	Orozko	Bilbao Alboniga, Juan Luis eta Echevarria Blazquez, Ana Mariaren Oinordekoak		3,0700	123,8100	2	138	1, 3	Lorategia	
M.OR-137	Orozko	Agorreta Nieva, Maria Teresa		2,2900	169,5300	2	137	1, 2, 3	Lorategia	
M.OR-83	Orozko	Ana Mª Gastaka Gorostiola		49,0200	110,0400	2	83	1, 3	Ortua	
M.OR-202	Orozko	Orozko Udala	48,2000	55,8900	45,8800	2	202		Katastratu gabea	
M.OR-201	Orozko	Confederación Hidrográfica Del Norte			10,4100	2	201		Katastratu gabea Ibaita	
M.OR-87	Orozko	Mendilibar Renter Emeteria		8,8200	23,7800	2	87	2	Fruta-arbolak	
M.OR-84	Orozko	Picaza Olavarria, Maria Begoña	333,2000	58,6400	24,4000	2	84	1, 3	Baso hostotsua Labore-lurra	
M.LA-803	Laudio/Llodio	Ana Mª Gastaka Gorostiola	2,1500	11,9500	11,1700	7	803		ekoizteko ez dena	
M.LA-144	Laudio/Llodio	Cdad De Propietarios Anuntzibai 5		188,1700	377,6300	7	144		ekoizteko ez dena	

2024ko azaroaren 27a, asteazkena

Nerbioi ibaiaren goiko arroa saneatzeko kolektoreen proiektua. 1. aldaketa. Basaurbe tartea. 8. eta 9. tarsteak									
Finkaren zb.	Udalerría	Jabea	Behin betiko desjabetzea	Akueduktu-zortasuna	Aldi baterako okupazioa	Lur-eremua	Lurzatia	Azpi-lurzatia	Ukitutako ondasunaren aprobetxamendua eta katastroko izaera
M.LA-740	Laudio/Llodio	Gonzalez López De Ceballos, M ^a Teresa		279,5800	903,9200	7	740		Baso garaia
M.LA-145	Laudio/Llodio	EAE		1.657,9700	2.587,8100	7	145		Lehorreko laborantza Ortua Pinudia